



Tolosaren etorkizuna hizpide izan da parte-hartze jardunaldietan

ARAUAK ▶ Berrogei lagun aritu dira arau subsidiarioen inguruan hausnarketan

ARGAZKIA ▶ Hemendik hamar urterako 'herriaren argazkia' egin zuten

PROZESUA ▶ Arauak berritzeko prozesu luzea hiru fasetan banatzen da ▶ 2

NOELIA LATABURU



AHTren aurkako akanpada Langaurren izango da

ALEGIA ▶ Hilaren 22tik 31ra egingo dute; Donostian egin zuten akanpadaren aurkezpena atzo ▶ 5

IBARRA ▶

Magrebiar festa izango da datorren astean

Irazki elkarteak antolatu du ▶ 6

ARESO ▶

Finaletara pisu handietan

Bi sokatira taldeak Azpeitian eta Getxon izango dira, 600 eta 640 kilotan ▶ 7

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Londreseko atentatuek «eguneroko bizitzan ez dute eraginik izan», eskualdekoen iritziz

Han bizi diren eskualdeko herritarren testimonioa jaso du HITZAK ▶ 3

TXIRRINDULARITZA ▶

Artola,
Olaberria eta
Pagola,
Italiara

Espainiako
selektioarekin ariko
dira Europako
Txapelketan

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko hiru txirrindulari izango dira Europako Txapelketan Espainiako selektioarekin: Xabier Artola tolosarra eta Leire Olaberria ikaztegiarra (Bruesa) eta Ainhoa Pagola tolosarra (Urrats). Hilaren 20tik 24ra jokatuko dira Italian Europako Txapelketak. Didac Navarro eta Salvador Cabeza de Vaca selekzionatzaileek guztira zazpi txirrindulari euskaldun hautatu dituzte. Gai nontzeko Unai Elorriaga, Haitz Larrinaga eta Martzel Elorriaga bizkaitarrak eta Mazkianar nafarra dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
 - Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

HIRIGINTZA ▶

Herriaren etorkizuna hizpide parte-hartze jardunaldietan

Berrogei lagun inguru aritu dira arau subsidiarioen inguruan hausnartzen

JOXEMI SAIZAR

Herritarrak, elkarteak eta agente ekonomikoak deitu zituen Udalak arau subsidiarioak berritzeko prozesuan bere iritzia jasotzeko eta berrogei lagun inguru aritu ziren ostira-lean eta larunbatean. Gaur egungo alde positiboak eta negatiboak aztertu eta hemendik hamar bat urtera nolako Tolosa nahi duten eztabaidatu zuten taldeetan: etxebizitzak, natur inguruneak, lantegiak, errepideak, aparkalekuak, kultur eta kirol ekipamenduak, herribusa, herri sarrerak, klinika... izan zituzten hizpide.

Hasteko, ostiral arratsaldean eta larunbate goizeko lehen orduetan arau subsidiarioen inguruko azalpen saioak izan zituzten Mikel Iriondoren eskutik. Zoru urbanoa eta urbanizagarria zer den azaldu zuten, besteak beste. Prozesua hiru fasetan banatzen dela esan zuten: diagnostikoa —jardunaldi hauena—, plangintzaren aurrerapena irizpideak eta helburu nagusiak zehaztu eta azken proiektua egitea.

Proiektu honek tramitazio luzea izango du: Udalaren hasierako onarpena, erakusketa publikoa, alegazioen balorazioa, Udalaren behin-behineko onarpena eta Foru Aldundiaren behin-betiko onarpena. Ondoren, hiru taldeetan banatuta —herritarrak, elkarteak eta agente ekonomikoak— eta Indic enpresako —Iniciatives i dinamiques comunitaries— ki-deen zuzendaritzapean eztabaida saioak izan ziren. Bartzelonako enpresa hori parte-hartze metodologietan aditua da. Hiru gaien inguruan izan zuten eztabaida: hazkuntza eta natur ingurunea; ekipamenduak, ondarea eta espazio libreak; eta mugikortasuna eta komunikazioa. Talde txikiagotan banatuta, hiru gaien inguruko alde positiboak eta negatiboak ikusi zituzten parte-hartzaileek.

Herriaren argazkia

Ondoren hiru talde horien ondorioak azaldu ziren denen aurrean, «gaur egungo herriaren argazkia» erakutsiz ikuspuntu eta pertzepzio desberdinetatik begiratuta.

Larunbat arratsaldean goizeko hiru taldeak nahastu egin ziren beste hirutan eta bako-



Ostiraleko saioko irudi bat, parte-hartzaileak udaletxeko batzar areto nagusian. HITZA

tzak goizeko gai bana jorratu zuten sakonkiago.

Hazkuntza eta natur ingurunearen taldean gaur egungo errealtatetik abiatzeko beharra aipatu zuten: egiten ari diren aktibitateak, biztanleen beharrak... herriaren planteamendua errebisatzeko garaian. Etxebizitza parkea handitzeko beharra aipatu zuten, San Blas edo SAM guneean egin diren bezalako aktuazioak ebitatu, baina dauden baliapideak aprobetxatu: etxe hutsak, etxebizitzaren azpialdeak, lehe pisuak eta atikoak, e.a. Bestalde, jarduera ekonomikoaren alorrean, industriak eta administrazioak dituzten erritmoak egokitzearen beharra eta jarduera ekonomikoa herrira erakartzeko beharra aipatu zuten, biztanleak lanera kanpora joan behar ez izateko. Natur ingurunearen alorrean, landa auzoak dinamizatu behar direla esan zuten, azpiegiturak emanez, bere erabilpena eta ezagutza bultzatu eta hondakinak kudeaketa hobetu behar dela, ingurumenaren egiten den kaltea murrizteko.

Ekipamenduak, ondarea eta espazio libreei buruz aritu zen lan taldean gaur egun dauden baliapideak aprobetxatu behar direla esan zuten, herriko ondare arkitektonikoa berreskuratuz eta bere erabilpena optimizatuz. Zumardi Handia eta Zumardi Txikia izatea eta Elosegi parkea gune berde gisa berreskuratzeko aukera baloratu zituzten parte-hartzaileek. Landa auzoak ezagu-

DATU BATZUK ▶

Azalera. 37,9 km2 (urbanoa 2,57 eta ez urbanoa 35,36).

Biztanlegoa. 17.830.

Adin banaketa. 0-19 urte: 3.050 (%17). 20-64 urte: 11.067 (%62), +65 urte: 3.713 (%21).

Gaur egungo arauak. 1989ko otsailean onartu ziren. Aurreikuspen gehienak garatu eta exekutatu egin dira. 23 aldaketa izan dira (Igarondo, kiroldegia...)

PROZESUA

Arauak berritzeko prozesuak hiru fase ditu: diagnostikoa, aurrerapena eta azken proiektua

tza emanez eta ekipamenduren bat jarriz jolasgune gisa sustatzeko aukera ere hausnartu zuten. Ekipamenduak herrian non kokatu behar diren erabakitzeko garaian kontuan eduki beharreko irizpideak ere izan ziren eztabaidagai. Egiten ari diren kirol instalakuntza berriak ondo baloratu zituzten. Hezkuntza ekipamenduak ere ontzat jo zituzten. Kultur horniduretan eskaintza ona dagoela aipatu zuten, baina «probetxu handiagoo» atera behar zaiela. Gazteentzako eta adinekoentzako ekipamenduen eta gune estalien falta ere somatu zuten. Ondare arkitek-

tonikoa berreskuratzearan alde agertu ziren —Abastos plaza, Zerkausia, Euskal Herria plazako epaitegia—.

Azkenik, hirugarren lan taldea mugikortasuna eta komunikazioei buruz aritu zen hizketan. Herri barruko autobus zerbitzua izatea eta bere erabilpena positiboki baloratu zuten eta herrigunea, auzoak —Amaroz, adibidez— eta landa auzoen arteko komunikazioa hobetzeko beharra aipatu zuten. Herriko sarbideetan ilara luteak sortzen direla aipatu zuten. Bidegorriaren ibilbidea hobetzeaz —Rondilla kaletik kentzearen alde agertu ziren— eta oztopo arkitektonikoak kentzeko lanaz ere eztabaidatu zuten. Aparkalekuen arazoren uestezko konponbide eta alternatibez ere aritu ziren, bai bizilagunentzat, bai bisitariarentzat, eta baita Asuncion klinikaren kasu zehatzaz. Artxibo probintzialaren atzealdean pisutako aparkaleku handia eraikitzea proposatu zuten.

Ondorioen txostena

Asteburuan izan diren jardunaldi hauen ondorio gisa txosten bat egingo dute, herriaren gaur egungo alderdi positiboak eta negatiboak jasoz, hausnarketa eta eztabaidarako jarrirako gaien arabera egituratuta. Dokumentu hori Udalar, jardunaldietako parte-hartzaileei eta proiektuaren talde erredaktatzaileari bidaliko die, te aztertze eta azken diagnostiko teknikoan sartzeko.

GIZARTEA ▶

Londresko erasoen ondorenak

«Eguneroko bizitzan ez dute eraginik izan atentatuak»; halaxe esan dute han bizi diren eskualdeko herritarrek

IRATXE ETXEBESTE

Egun gutxi batzuk pasatu dira Londresko atentatuak gertatu zirenetik, eta hildakoak 52 direla jakinarazi du Erresuma Batuko Gobernuak. Gehiago ere izan daitezkeela ohartarazi du Polizia Metropolitanoko buruak, oraindik leherketak izan ziren tokiak miatzen ari direlako eta erietxean 56 lagun daudelako; horietako batzuk, oso larri.

Bienbitartean, aztarna bila jarraitzen dute, eta inteligentzia zerbitzuek eman dituzte hainbat datu ekintzaileek egin zituzten mugimenduei buruz; hala ere, ez dute orain arte haien nortasunari buruzko arrastorik aurkitu.

Erresuma Batuko lehen ministro Tony Blairrek herenegun egin zuen agerraldia lehen aldiz atentatuaz geroztik, eta bere hitzetan, «ia segurua» da erasoen erantzuleak «muturreko islamistak» direla.

Horixe bera uste dute arrazoi batengatik edo besteagatik Londres hirian bizi diren Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek. HITZAK horietako batzuekin hitz egitea lortu du, atentatuak haien bizitzan zer nolako eragina izan duten azaltzeko. Beste batzuen berri ere izan arren, ezinezkoa izan da guztiekin harremanetan jartztea. Hona hemen haiek esandakoak:

JOSU ITURBE
IRURA

«Bizimodu normala ari da egiten jendea»

«Leherketa gehienak izan ziren metro geltokitik oso gertu bizi naiz, eta lotan nongoen bon-

bek eztanda egin zutenean; ez nituen eztrandak nabaritu ere egin. Handik gutxira nire lagun bat etorri zitzaidan etxera, eta hark esan zidan gertatutako guztia; halaxe jakin nuen. Madrillgo atentatuak gertatu zirenean Iruran nongoen, eta Londresekoen alboan, askoz ere oihartzun handiagoa izan zuten. Hemengo jendeak bizimodu normala egin du atentatuak gertatu zirenetik [joan zen aste-ko osteguna, hilak 7]; pentsa, handik ordubetera supermerkatu-ara joan nintzen ni, egunero bezala. Badirudi hemendik kanpoko hedabideak garrantzia handiagoa ari zaiela ematen gertatutakoari hemen bertakoak baino, egunkarietan ez baita leherketen gaineko informazio gehiegi agertzen; gainera, kalean ez daude atentatuak gaitzesten dituzten kartelak eta. Uste dut kanpotik etortzen den jendeak beldur handiagoa duela hemen bertakoek baino; hain dira hotzak hemen; ez dute, be-hintzat, ezinegonik adierazten. Metroko linea bat itxita dago orain, eta horrek kalte egiten digula batetik bestera ibiltzeko, gainerakoan ez da atentatuengatik beste ezer nabaritzen».

MIREN OTEGI
TOLOSA

«Egunkariak ez dute gaia askorik jorratzen»

«Etxean nongoen atentatuak jazo zirenean, eta telebistatik jakin nuen berria. Finantza gunitik ordu erdira bizi naiz, eta hemen, kanpoaldean, ez da leherketen eragina hainbeste nabaritzen. Egia esan espero genuen egunen batean hauxe

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

KEY-LAN
Sarrailgintza
Nafarroa etorb., 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak, ... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Londresko finantza gunean izan ziren leherketak joan den ostegunean; argazkian, bonbetako batek eztanda egin zuen bi pisuko autobusa txikituta, inguruan segurtasun hesia jarrita duela. HITZA

gertatzea, baina agian ez orain, G-8koak Eskozian bilduta zirela. Olinpiar Jokoen ospakizunetan murgilduta zegoen jendea, aztoratuta, eta hurrengo egunean gertatu da... Nork daki, agian izango dira atentatu gehiago ere! Autobusetan nabaritzen da jendeak baduela nola-baiteko ezinegona, soinu arraro bat entzunez gero dantzan jartzten baitira denak. Bestela, bizitza normala egiten dute denek; egunkarietan begiratzen du jendeak eztaudek ezagutzen bat harrapatu ote duten, desagertutakoak zeintzuk diren, eta halakoak, baina gaia ez dute askorik jorratzen bestela. Kanpoko egunkarien azalak ikustean oso nabarmena da ezberdintasuna; argazki beldurgarriak jartzten dituzte, masakrea irudikatuz; hemengoetan ez da orain arte halakorik agertu».

ITZIAR FAGOAGA
LEITZA

«Ezer berezirik ez dugu nabaritu hemen»

«Larunbatean, hilak 9, iritsi nintzen Londresera senarra [Pablo Arozena leitzarra, irakaslea da eta uda osorako proiektu bat egitera joan da] bisitatzeko eta ez nuen ezer berezirik nabaritu. Lurra hartu behar genuenean hegazkinean hamar minutu bueltaka ibili ginen eta segurtasun arazoengatik zela esan ziguten. Ez dakit normala den. Pasaportea beti bezala eskatu ziguten. Senarra autoz etorri zen ni eta urearekin bila eta aireportuan trafikoa handia omen zegoen, baina hori ere normala omen da. Birminghamen bizi gaude, Londresetik 200 bat kilometrotara, iparraldera, eta justu la-

runbatean hemen 20.000 pertsona kanporatu zituzten bere hotel eta etxeetatik segurtasun arazoengatik, bonba abisu bat izan zelako. Senarrari ez zitzaion tokatu etxetik ateratzea, baina bere lankide bati bai: hoteletik atera zuten eta ez zioten bere gauzak hartzen utzi. Lagun baten etxera joan omen zen, baina beste batzuk uni-bertsitatean egin behar izan zuten lo. Ez bazaizu tokatzen, ez duzu ezer nabaritzen. Bestela, atentatuaren egunean ez zuten ezer nabaritu telebistan ikusi arte. Egun hauetan lasaitasuna ikusi dugu kalean. Jendearekin izan gaita eta ez berezirik ez dugu nabaritu. Hasieran Erresuma Batuko bandera gehiago ikustea iruditu zitzaidan, AEBn irailaren 11ko atentatuaren ondoren gertatu zen bezala, baina senarrak esan dit ezetz, lehendik ere jarrita zeudela».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO
Inketa. Eguneko albisteak, egunkarian argitaratutako zorian agurrak, tren, autobus eta farmazia zerbitzuak, agenda... horiek eta beste hainbat gauza ikusi ahal izango dituzu eskualdeko euskarazko egunkarian. Zure iritzia emateko aukera ere eskaintzen dizu HITZak; www.tolosaldeko-hitza.info webgunean sartu, eta proposatu diren gaien inguruko iritzia eman. Hau da aste honetako inkestako galdera: nolako oporrak dituzu gustuko?

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA
Gobernu Batzarrak, 2005eko maiatzaren 23an egindako bilan, baldintza administratiboen agina onartu zuen, Tolosako Euskal Herria plazako 1ean [orain arte Zentro Gerontologikoa] etxe babestuak egiteko proiektuak idatzeko eta egiteko ideia-lehiaketa arautzeko.
1. **Helburua.** Konponbide arkitektonikoen ideien edo aurretiko estudioen lehiaketa, Tolosako Euskal Herria plazako 1 zenbakia duen eraikina birmoldatzeko, bertan etxebizitza babestuen programa bat antolatzeko, oinarrietan ezarritakoaren arabera.
2. **Proposamen ekonomikoak.** Litzitatzaileek ordainasariaren kostuen proposamena aurkeztu beharko du, ondorengoaren arabera zehaztuta:
- Oinarriko proiektua,
- Exekuzio-proiektua, aldariz hornitzeko proposamena eranskin duela,
- Segurtasun, osasun eta kalitate kontrolatzeko programaren proiektua,
- Obren goi zuzendatza teknikoak,
- Obren zuzendatza artaisua,
- Segurtasun- eta osasun-koordinazioa,
- Jarduera-proiektua,
- Larrialdiko plana,
- Obra-amaierako planoak.
3. **Ezekutatze epeak.** Litzitatzaileak ondorengo lan hauek exekutatze epeak proposatu beharko ditu:
- Oinarriko Proiektua egitea,
- Exekuzio-Proiektua eta aldariz hornitzeko Proposamena egitea,
- Segurtasun, osasun- eta kalitate kontrolatzeko programaren Proiektua egitea,
- Jarduera-proiektua egitea,
- Larrialdiko plana egitea,
- Obra-amaierako planoak entregatzea.
4. **Espedientea ikusteko.** Espedientea ikusgai dago Tolosako Udaltaldeko Obretako Departamentuan: plaza Zaharra 6-B. Tel: 943 69 74 51
5. **Eskaintzak aurkezteko lekua.** Tolosako Udaltaldeko Erregistroan: plaza Zaharra 6-B, 2005eko uztailaren 26 [13:00ak] arte.
Tolosan, 2005eko uztailaren 7an, ALKATEA

VILLABONA ▶ GARAGARDO AZOKA

Bihar zabalduko ditu atea Villabonako IX. Garagardo Azokak

Hemezortzi garagardo ezberdin dastatu ahal izango ditu Txermingo ikastolara igandea bitartean gerturatzen denak



Agustin Laskurain eta Mikel Uzkudun antolatzaileak aurtengo azokako kartela eskuetan dutela. IMANOL GARCIA

JULEN GOIKOETXEA

Bihartik aurrera garagardoa izango da protagonista Villabonan. Izan ere, Irrintzi elkarteak antolatua IX. Garagardo Azokaren atea irekiko baitira arratsaldeko seietan. Une horretatik iganderarte hemezortzi garagardo mota ezberdin dastatu ahal izango ditu bertaratzen den orok hainbat jakiz lagunduta. Aurtengo edizioa bereiztat jo dute antolatzaileek, datorren urtean 25 urte beteko baitituzte eta pentsatuta ditzuten ekitaldiak burutzeko izango baita azokan bildutako dirua.

Elkartekideen hitzetan, «bihartik aurrera elkarteko bazkideen gehiengo zabal batez gain, beste hainbat lagun eta boluntariok jardungo dute lanean». Mota horretako azoka batek lan handia eskatzen du

aurretik, azoka egunetan eta ondoren.

Festa hasi aurreko egunetan guztia montatu behar izaten da gero bertara datozenek behar duten guztia izan dezaten. Azoka egunetan ere izaten da lana garagardoa zerbitzatzeko, jantzia prestatzeko, mahaia jaso-

tzen... Eta noski, elkartekideek adierazi duten bezala «okerrenak azoka ondorengo egunak izaten dira; guztia desmontatzeak lan handia dakar, baina egin beharreko lana da dudarik gabekoa».

Eskualdeko zaharrena eta probintziako bigarrena den

AZOKA ▶ ESKAINTZA

GARAGARDOAK

Zuriak. Brugs.

Horiak. Maes, Grimbergen Blond, Carlsberg, Foster's, San Miguel, San Miguel Nostrum, San Miguel 0,0%, Mahou 5 estrellas, Kronenbourg 1664, Miller, Judas, Grimbergen (cuvée de l'ermitage).

Toatsuak. Grimberge Dubbel, New Castle Brown Ale, John Smith's

Beltzak. Beamish,
Bereziak. Mort Subite

MENUA

Sarrerakoak. Frankfurt eta Bratwist salbitxak, haragi pastela, gulak, entsalada alemaniarra eta patatak «navarrito» erara.

Bigarren platera. Ukondoa.

Postreak. Idiazabalgo gazta tarta, sagardo tarta, Alustizako gazta eta mamia tarta.

azoka horretan urtetik urtera jende gehiagoren bisitak jaso dituztela aipatu dute Irrintziko kideek. «700 pertsona sartzen dira Txerminen eta guk ditugun baliabideekin kopuru horrentzat lan egiteko arazorik ez dugu.»

Aurtengo edizioan hainbat aldaketa egongo dira menuaren baitan. Esate baterako sarrerakoetan iazko lasagnaren ordez, patatak «navarrito» erara jateko aukera izango da edo postreen barruan mamia tarta jateko aukera izango da. Postre hau dastatu ahal izateko 2,5 euro ordaindu beharko dira; hau da, beste postreengatik baina 0,5 euro gehiago.

Baina berrikuntza nagusia garagardoan alorrean aurkituko du azokara doanak. Beste urteetan ez bezala, ez da garagardoan artean bereizketarik egongo. Guztiek 3 euro balioko dute. Hiru garagardo ez beste guztiak pittarretan emango dira horietako bakoitzak euro bat balioko duelarik. Aipatu hirurok botiletan banatuko dituzte.

Aurten ere Tenerifera

Iaz bezala, aurten ere azokatik pasatzen den norbaitek Tenerifera joateko aukera izango du. Pittar bat erosten duen bakoitzari zerbaki bat izango duen txartel bat emango zaio igandeko gauko 21:30ean egingo den zozketan irtetzen den zerbakiaren jabeak aipatu Kanariar uharte hau bisitatzeko aukera izango du.

Lehen esan bezala, Irrintzi elkarteak datorren urtean 25 urte beteko ditu. Bertatik adierazi dutenez «mende laurdena betetzen dugun urtea ahaztezi- n izatea nahi dugu eta horretarako ekintza mordoa prestatzen ari gara. Baina orain aurtengoaz gozatzeko garaia da eta horretarako aukera paregabea du garagardoazale orok asteburuan».

Beraz, bihurtik igandera bitartean egiteko handirik ez dutenek, Villabonako azokan izango dute garagardo onez eta giro alemaniar ederrez gozatzeko aukera.

IRURRA ▶

Udalaren diru laguntzak euskara ikasleei

Udaletxean eskatu behar dira laguntzak, ostirala, hilak 15, baino lehen

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak 2004-2005 ikasturtean euskara ikasten aritu diren herritarrek diru laguntza erabaki du. Horretarako, laguntza hauek ematea onartzen duen udal ordenantza onartuta, interesatuta dauden ikasleek udaletxera jo beharko dute datorren ostirala, uztailak 15, baino lehen.

Herritarrek eskaera hori egitera doazenean, hainbat agiri aurkeztu beharko dituzte laguntza jaso nahi badute. Eskabide-orkia eta aitortza-agiria modu egokian beteta eraman behar dira; agiri hauek udaletxean dira eskuragai. NANaren fotokopia ere eraman behar da banketxe edo aurrezki kutxak sinaturiko agiriarekin batera, non laguntza eskatzera doana kontu korrontearen titularrak dela egiaztatzen den. Bestalde gastuaren diru sarrera egingen dela ziurtatzen duen banketxeko agiria ere eraman behar da eta azkenik euskaltegiak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da udaletxean.

Eskaria, euskaltegian

Azkenik, Irurako Udalak aldaketa baten berri jakinarazten die herritarrei. Hemendik aurrera euskaltegian matrikulatzen diren unean bertan egin beharko dute euskara ikasten duteek diru laguntzaren eskaria eta ez behin ikasturtea amaitzean, orain arte egin izan duten bezala.

hilberriak ▶



Jose Luis Esnaola Agirregabiria

Atzo hil zen, Zarautzen, 61 urte zituela.

HEGAZTIK BAIKINEN,
ZURE DISTIRAZ EHIZATU GAITUZU.
IKARRAGARRI MAITE ZAITUGU.

Maribi, Aitziber eta Irtaxe.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute, eta arren etor zaitetzela GAUR, uztailak 13, arratsaldeko 19:00etan, Zarauzko Santa Maria Parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua Errekaldeko beilategian dago.

ZARAUTZ, 2005eko uztailaren 13a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berean

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

IBARRA ▶ GIZARTEA

Magrebiar Festa antolatatu du Irazkik

Datorren uztailaren 23an egingo da; tailerra, afaria eta musika izango dira



Irazki elkarteak antolatutako janari dastaketa. OLAIJA ESKITXABEL

INIGO TERRADILLOS

Datorren larunbatean, uztailaren 23an, Irazki elkarteak antolatuta Ibarra San Bartolome plazan Festa Magrebiarra egingo da. Horrela, larunbat arratsaldetik hasita gauerarte ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango da.

Tailerrekin hasiko da festa berezi hau. Henna egiten ikasi ahaliko da bertan, eta ondoren arpegia edota gorputzeko atal ezberdinak apaintzen ikasiko dute. Horretaz gain, arabiar idazkeraren inguruan gehiago jakiteko aukera izango da eta baita sbel dantzari buruz. Eta azkenik, ogia egiten irakatsiko diete bertaratzen direnei.

Behin tailerra amaituta eginda-ko eskulaneekin San Bartolome plaza apainduko dute.

Gauean ohiko afari magrebiarra dastatu ahaliko da. Besteak beste, couscous-a eta Marokoko gozo tradizionalak prestatuko dituzte. Afarira joan nahi duenak, Ibarra Danon Txokoa, Zubiaurre eta Atari tabernetan, Tolosako San Francisco lokutorioan eta Denak eta Orbela tabernetan eskura ditzakete 15 euro ordainduta txartelak. Afalostean, berriz, Cheb Mougait-en kontzertuaz eta Iruerenen sabel dantzaz gozatzeko aukera izango da.

Irazki elkarteak jende guztia gonbidatu nahi du jai honetan parte hartzera.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Rumania eta Celin Indiako lekaimeen bisita

Ibarra San Bartolome misio taldeak Indiako bi lekaimeen bisita izan du pasa den asteburuan. Zoila Ganzarain ibartarra izan zen bezala, Rumania eta Celin lekaimeak Vedrunen komunitate erlijiosokoak dira. Bi lekaime hauen lana gertutik ikusi dutenak txundituta geratu direla diote lan ugari egiten ari baitira Gujerat zonaldeko jende txiroaren alde. Ibarra bisitaldian, lekaimeekin batera hainbat familia bildu ziren bazkarian, eta horien artean Pedro Galdos aita izan zen, Venezuelan hainbat urtez misio lanetan dabilen Iñaki Galdos aitaren anaia. Misiolari hauen esperientziak asko ikasi zutela azaldu dute misio taldekoek. Bestalde, Indiatik etorritako bi lekaimeek eskertu egin zuten Ibarra eskaintzen duen laguntza proiektuek aurrera egin dezaten.



San Bartolome misio taldeko kideak Indiako bi lekaimeekin Ibarra plazan. HITZA

BELAUNTZA ▶

Txotxongilo emanaldia ostiralean

Belauntzako Udalak ostiralean, hilaren 15ean, Irrintzi antzerki taldearen *Bakartxoaren zapatilak* ikuskizuna antolatu du. Kultur etxean izango da 11:00etan.

IBARRA ▶

Bihar, 'John Q' filma ikusgai

Ibarra Gazte Asanbladak antolatzen duen gau giro zine klubaren barnean bihar *John Q* filma izango da ikusgai 22:00etatik aurrera Ibarra plazan, udaletxearen ondoan dagoen pilotalekuan. John Q. lantegi batean lanean ari den gizon arrunta da. Bere semea gaixotu egingo da eta ebakuntza egin beharko zaio, baina ez du dirurik ordaintzeko, eta desesperatuta larrialdi zerbizuetako langileak behituko ditu.

IBARRA ▶

Jaietako danborradarako entseguak

San Bartolome jaietako danborradetarako bigarren entseguak egingo dituzte gaur Belabietako kiroldegian. Gazte txoak ariko dira lehendabizi 20:00etan hasita, eta ondoren helduen txanda izango da 21:00ak aldera hasiko direlarik. Parte-hartzaileei gogorazten zaie gutxienez bi entsegutara joan behar dela atera ahal izateko.

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe abtiki: sukualdea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela

eta bi terraza bigarren solairuan; bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Alkiza. Familia bakarreko etxea, eraikitako 300 m², 4.000 m²-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m², bi partzelatan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4. logela, 2 bainugela, egongela, sukualdea, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. 1.050 m²-ko bi solairuko eta 250 m²-ko solairu artea duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresna eta hobekuntzekin hornitua.

Beasain. 45 m² erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

Berastegi. 100 m² dituen bi solairuko borda salgai. Moldaketa behar du. 35 eta 50 urteko laritz pinuak dituen 75.000 m²-ko lursailarekin.

Donostia. Saguesen, 70 m² dituen duplexa salgai. Berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.

Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m² erabilgarri dituen etxebizitza salgai. Oztaran kalean. Dena kanpokaldera.

Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350

m²-tik hasita, 14.000 m² pabilioi salgai.

Tolosa. Iurre, 98 m²-ko etxebizitza. Kanpokaldera, igogailua, trastelekua eta garaje marrarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m² dituen etxebizitza salgai, kanpokaldera.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpokaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa.

Kanpokaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel-en, duplex-a estreinatzeko.

Tolosa. Apattarrekian, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Berritua. Garajea eta lur-sailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamentuak, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko bi etxebizitza salgai.

Tolosa. Agintari kalean berrituriko apartamentua salgai. Bizitzera sartzeko.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 120 m² dituen etxebizitza salgai. Berritua.

ARESO ▶ SOKATIRA

Pisu handietako finaletarako sailkatu da Aresoko taldea

600 eta 640 kilotan, hilaren 23 eta 24an jokatu dituzte finalak Azpeitian eta Getxon, hurrenez hurren



Txapelaren bila doaz aresoarrak. Baietz apustu! J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo asteburuan jokatu ziren 600 eta 640 kiloko pisuan, bigarren jardunaldiak, Euskal Herriko Lur gaineko Sokatira Txapelketan, eta Areso taldea finalerako sailkatu zen, bi pisuetan.

Pisu bakoitzean, launako taldeetan aritu ziren lanean tiralarriak eta eguneko puntuei aurreko jardunaldikoak gehituta, taldeko hiru aurrenekoak igaro ziren finaletara. 600 kiloko, Azpeitian eginen dute hilaren 23an, arratsaldean, Goiherri A, Nuarbe, Areso, Mutriku, Gaztedi A eta Gaztedi B taldeen artean; 640 kiloko txapela, berriz,

Getxoko Haize Errotan erabakiko dute, hilaren 24ko eguerdiartean, Gaztedi A, Nuarbe, Areso, Goiherri A, Gaztedi B eta Mutriku.

Txartelaren jabe egiteko aukera gehintsuenak zituzten taldeak igaro ziren azken fasera. Ziotenez, tiraldi motzak nagusi izan ziren jardunaldian zehar; sokaren epaia azkar mugitzen omen zen aldeetara, azkenik aurreneko jardunaldiko hautagai berak aurre hartu zutelarik. 600ekoan, Goiherri Ak eta Nuarbek indartsu zeudela erakutsi zuten, ia tiraldi guztiak irabazita iritsi baitziren finaleira, Areso, bi Gaztedirekin batera; 640ekoan, be-

SAILKAPENA ▶

600 KILO

1. taldea.

Taldea	I	II	Guzt.
1. Nuarbe	3,5	4	7,5
2. Mutriku	2	3	5
3. Gaztedi A	3,5	1	4,5
4. Goiherri B	1	2	3

2. taldea.

Taldea	I	II	Guzt.
1. Goiherri A	4	4	8
2. Areso	3	2,5	5,5
3. Gaztedi B	1,5	2,5	4
4. Getxo	1,5	1	2,5

640 KILO

1. taldea.

Taldea	I	II	Guzt.
1. Nuarbe	4	3,5	7,5
2. Areso	2	3,5	5,5
3. Gaztedi B	3	2	5
4. Goiherri B	1	1	2

2. taldea.

Taldea	I	II	Guzt.
1. Gaztedi A	4	4	8
2. Goiherri A	2,5	3	5,5
3. Mutriku	2,5	2	4,5
4. Getxo	1	1	2

rriz, asteburu honetakoan erreparatuz gero, Aresok eta Nuarbek berdin bukatu zuten. Etxeokok lan ona egin zuten.

Orain, 23 eta 24ko saioetan puntu gehien eskuratzen dituzten taldeak, txapeldun!

IGERIKETA ▶



Zuriñe eta Julen (bi ezkerrekoak), prestatzaile eta kideekin. S. LASARTE



Adur eta Julen —50 m.tan zilarrezko domina— ariketa eginda. S. L.

Hiru igerilari Euskal Herriko Txapelketan

Infantilen mailan parte hartu dute eta zilarrezko domina bat eskuratuta itzuli dira

J. ASTIBIA

Zuriñe Goikoetxea Aresokoa eta Adur Saizar eta Julen Sagastibeltza leitzarrak, Galdakaon burutu den Euskal Herriko Udako Txapelketan izan dira, infantiletan, eta zilarrezko domina lortuta itzuli dira: Julenek eskuratu du, *crawl* erako 50 metroko luzeran. 100 eta 200 metro luzeretan ere parte hartu zuen, ordea, mutiak, 12. eta 10. lekuak lortuz.

Zuriñek, bizkarrezko estilotan, 100 eta 200m-tan hartu zuen parte, 12. eta 8. eginez; Adurrek, bular estilotan egin zuen, 50, 100 eta 200eko luzeretan, 6., 7. eta 6. lekua lortuz.

Nafarroakoan minimatarari iritsita sailkatu ziren Euskal Herriko, urte guztian Irurutzungo Itxesia igeriketa klubean prestatzen diren gazte hauek. Eta, hirurak ere gusturaz itzuli ziren, bakoitzak zuen marka hobetu baituzten.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI
KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 13a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

udalak: Alabardeta, Adana, Abitur, Alege, Alca, Alca, Alca, Ametzieta, Anosta, Araso, Balamara, Barandua, Berastegi, Berubi, Edoain, Hernizale, Irujo, Irujo, Leizola, Lizarra, Orendain, Orendain, Tolosa, Villatoro, Zuzuki, besterik: Leitzaldeko Euskara Batordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Festa Alternatiboen barruan hilaren 15ean egingo den bazkarirako txartelak salgai daude egunotan, betiko tabernetan, 5 eurotan.
Ibarra. San Bartolome jaietako danborradetarako bigarren entseguak, Belabieta kiroldegian: haurrena 20:00etan, eta helduena 21:00etan. Gutxienez bi entsegutara joan behar da atera ahal izateko.

Tolosa. Alpino Uzturre mendi elkarteak Picos de Europa (Kantabria) irteera antolatuta du 23, 24 eta 25erako. Izen-ematea zabalik da elkartearen (Gudari 5, behea. 943 65 27 89).

Tolosa. Iturriza elkarteak Brioneseko Ardoaren Museora irteera antolatuta du abuztuaren 5erako. Izen-ematea, elkartearen (Euskal Herria plaza).

ERAKUSKETAK

Alegia. Fernando Rojoren eta Izarne Garmendiaren Afrikako argazkiak, Jubilatuen tabernan.

Hernalde. Pepi Arruti donostiarraren olio-pinturak herriko ostatuan.

Tolosa. Xabier Galizaren akuarelak Poxpolin enmarkazio dendan.

Tolosa. Alejandro Gonzalezen pinturak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Malen Urtzelaireren margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

ZINEMA

Anoeta. *Los caballeros de la mesa cuadrada.* 22:30ean, Gaztebe. Gazte Asanbladak antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Morant, R. Zabalaretza, 1. 943 67 38 49.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
19:00. Errepikapena.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldiriko tren berriak

TOLOALDEA ▶ Aldiriko zerbitzurako 80 tren berri kontratatu ditu Renfek; horietako hainbat eskualdea zeharkatzen duen linean erabiliko ditu



Argazkiaren moduko tren berriak, Civis motakoak, jarriko ditu Renfek aldiriko zerbitzuetan; «mugikortasuna errazten» dute. HITZA

ERREDAKZIOA

Aldiriko zerbitzurako 80 tren berri kontratatuko ditu Renfek, 40 treneko multzotan banatuta. Horietako hainbat Donostiaren inguruko linean jarriko ditu, hau da, eskualdea zeharkatzen duen zerbitzuan ibiliko dira. Erosketa horretan 455,7 milioi euro inbertituko ditu Renfek.

Civis izeneko trenak dira hemendik aurrera eskualdean ere ikusiko direnak. Dagoene-

ko Espainian badabilta mota horretako ibilgailuak: 2.000. urtean CAFek (Beasain), Alstom-ek, Siemens-ek eta Adtranz-ek osatutako patzuergoak egin zituen lehenak. «eskaera berriei erantzuteko eta ibilgailu zaharrik ordezkatzeko asmoz». Orain, Euskal Herria zabaltzea da asmoa. Azken kontratazio horretan Civis motako 177 tren izango ditu guztira Renfek.

Enpresak sortutako Civis plataformaren arauak bete behar dituzte mota horretako ibil-

gailuek. Hala, «teknologia berrien erabilera eta mugikortasunaren bermea batzen dituzte. Hau da, teknologia bidaiariaren erosotasunaren menpe jartzen da». Gainera, bi, hiru, lau edo bost bagoiz osatutako trenak izan daitezke, «zerbitzuen eta eskariaren arabera askatasun osoz moldatuz».

Bestalde, Civis motako trenak «persona ezinduen mugikortasuna errazten» dutela gogoratu du Renfek. «Tren hauen bagoietako batek zorua baxua-

go izango du. Hala, bidaiari horiei trenara igotzea eta jaistea erraztu egiten zaie, inongo aparato mekanikorik erabiltzeko beharrik gabe». Ezaugarri horrengatik Once Fundazioaren errekonozimendua jaso dutela gogoratu dute enpresakoek.

Kabinatik kabinara doan korridorea ere du ibilgailuak: guztia bat da hala, bagoi guztiak lotuta daudelako, tabikerik gabe. «Trenaren barruan mugikortasuna erraztea» du helburu azken ezaugarri honek.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Oñatz Arrillaga Agirre (Orexa). Gaur urtebete. Zorionak etheko guztien partetik.



URTE ASKOAN
Oñatz Arrillaga (Orexa). Gaur urtebete, muxu handi bat. Zure birramona Maria eta Beldarrain sendiaren partetik.



ZORIONAK
Ainhoa (Anoeta). 8 muxu goxo Amaia, Ana, aitabo eta amaboren partez.



URTE ASKOAN
Maialen Otermin (Anoeta). Gaur 9 urte. Zorionak eta muxu bat aita, ama, Josu eta Mikelen partetik.

HITZA, zorion agurren tarte
Urtebetetzek, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!